

Azterketarientzako argibideak

1. HE

I. Mailaren deskribapen orokorra

Mailaren jabea gai da:

- Entzundako elkarrizketak eta adierazpenak ulertzeko, lan esparrukoak, bere interesekoak eta, oro har, gai ezagunei eta eguneroko gorabeheri buruzkoak.
- Hizkuntza estandarrean idatzitako testuen ideia nagusiak ulertzeko, gaia ezaguna, ohikoa edota bere lan esparrukoa bada.
- Lan-arloko edota gai hurbilen eta ezagunen inguruko elkarrizketetan bat-batean aritzeko, nolabaiteko naturaltasunez eta jariozunez. Gai da, halaber, lanaren, eguneroko bizimoduaren eta esperientzien deskribapena egiteko, hainbat azalpen emateko eta iritzia agertzeko.
- Testu sinple, argi eta koherenteak sortzeko oinarritzko egiturak erabilia, testuak bere interesekoak, lanekoak edota eguneroko gorabeheri eta gaiei buruzkoak badira.

1. HE eta Europako Erreferentzia Markoaren B1 maila baliokideak dira.

[B1 mailari buruzko informazio gehiago.](#)

II. Azterketaldiaren nondik norakoak

1. HEko azterketa

Lehenengo hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko prozesuak bi azterketa izango ditu: idatzizkoa eta ahozkoa. Azterketa bakoitzak bi trebetasun neurtuko ditu eta guztiak gainditu behar dira hizkuntza-eskakizuna aitortu ahal izateko.

Idatzizko azterketa

Azterketa idatziak bi trebetasun neurtuko ditu: irakurmena eta idazmena. Azterketa hori baztertzailea izango da, hau da, gainditu egin beharko da ahozko azterketa egin ahal izateko.

Irakurmen-proba: hiru irakurgai izango ditu gutxienez eta, guztira, 25 item. Gainditzeko, 13 item erantzun beharko dira zuzen, hau da, % 50 gutxienez.

Erantzun okerrengeatik ez da punturik kenduko.

Iraupena: 50 minutu.

Idazmen-proba: gai eta helburu ezberdineko bi ariketa izango ditu. Ariketa biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete (lehenengo ariketan 50 hitz eta bigarrenetan 100 hitz, gutxienez).

Eskatutako hitz kopurua idatzi ez izanak puntu-galera ekarriko du.

Probak, osotara, 30 puntu balio du eta gainditzeko, 15 puntu behar dira; hau da, % 50.

Iraupena: 60 minutu.

Ahozko azterketa

Ahozko azterketak bi trebetasun neurtuko ditu: entzumena eta mintzamena.

Entzumen-proba: hiru entzungai izango ditu gutxienez eta, guztira, 25 item. Gainditzeko, 13 item erantzun behar dira zuzen, hau da, % 50 gutxienez. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko. Iraupena: 30-35 minutu.

Mintzamen-proba: trebetasun hau neurtzeko bi ariketa egingo dira: bakarrik eta bat-bateko elkarrizketa. Azterketariak binaka arituko dira. Probak, osotara, 30 puntu balio du eta gainditzeko, 15 puntu behar dira; hau da, % 50. Iraupena: 15-20 minutu.

1. HE: Puntuazioaren laburpen-taula

	Proba mota	Balioa	Puntuak	Gutxienez
IDATZIZKO AZTERKETA	Irakurmen-proba	% 20	20	10
	Idazmen-proba	% 30	30	15
AHOZKO AZTERKETA	Entzumen-proba	% 20	20	10
	Mintzamen-proba	% 30	30	15
		% 100	100	

IVAPEk egoki baderitzo, azterketa idatzia egin baino lehen Atariko Proba aplikatuko du. Proba horren bidez neurtuko da idatzizko azterketara aurkeztu ahal izateko euskararen gutxienerako ezagupen-maila. Proba egiteko arrazoia da xede eta helbururik gabeko azterketarik ez egitea, eta baliabiderik alferrik ez erabiltzea, ez Administrazioak, ez azterketariak

Atariko Proba

Atariko Probak 45 galdera edo item ditu eta gainditzeko galderen % 75 erantzun behar da ondo. Hala ere, Atariko Proba gainditu dutenen kopurua aurkeztutakoen % 50era heltzen ez bada, murriztu egingo da proba gainditzeko zuzen erantzun behar diren galderen ehuneko, gainditutakoen kopurua aurkeztutakoen % 50era iristeraino, hain zuzen.

Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.

Iraupena: 50 minutu.

Atariko Proba baztertzaila da, hau da, gainditu egin behar da hizkuntza-eskakizuneko azterketa egin ahal izateko.

III. Ebaluazio-irizpideak: idazmena eta mintzamena

IDAZMENA

Honako parametro hauek izango ditugu kontuan ebaluatzeko orduan:

Egokitasuna	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Gaiari heldu dio. ✓ Hitz kopurua bete du. ✓ Formatoa errespetatu du. <p><i>Hau da, eskaera-inprimakia eskatu bazaizu ez idatzi eskutitza.</i></p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Kontuan hartu du nori idatzi dion, zertarako... <i>Adibidez, agurra egitean "kaixo zuzendari jauna/andrea", "lankide agurgarria" bezalako agurrak ez dira egokiak.</i>
Koherentzia	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Testua lehen irakurraldian ulertu da eta irakurleak ez du asmatzen ibili behar izan. ✓ Ideiak argi azaldu ditu.
Kohesioa	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Ideiak eta esaldiak egoki lotuta daude eta irakurketa garbia da: oinarrizko lotura-elementuak (eta, baina, hala ere...) eta puntuazioa ondo erabili ditu.
Aberastasuna	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Oinarrizko hiztegia, hau da, eguneroko egoerei dagokiena (norbera, familia, zaletasunak, lana...) erabili du. ✓ Oinarrizko egiturak (konpletiboa, zehar estiloa...) erabili ditu.
Zuzentasuna	<p>Akats kopurua. Akatsek ez dute ulergarritasuna oztopatu.</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Akatsak ez dira oso oinarrizkoak izan eta ez dira behin eta berriro errepikatu. <p><i>Adibidez, ondoko hauek oinarri-oinarrizko akatsak dira:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - Atzo joan naiz lanera. - Goizez, 8tik 10era egiten dut lan. - Uste dut ez da etorriko. - Datorren osteguna esango digute. - Ni esan nion kasurik ez egitea. - Ostegunean, etxera joaten ginenean, ikusi genuen Jon.

MINTZAMENA

Honako parametro hauek izango ditugu kontuan ebaluatzeko orduan:

Komunikagaitasuna	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Gaiari buruzko azalpenak eta iritziak egoki adierazi ditu. ✓ Elkarrizketan iritzia eta informazioa trukatzeko ez du arazorik izan; hau da, solaskidearekin arazorik gabe trukatu du informazioa.
Jariotasuna	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Ideiak modu naturalean eta erraz adierazi ditu. ✓ Eten bat edo beste egin du baliabide bila. ✓ Bat-bateko elkarrizketan natural eta erritmo egokian moldatu da.
Aberastasuna	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Oinarrizko hiztegia (norbera, familia, zaletasunak, lana...) eta oinarrizko egiturak erabili ditu. ✓ Siple adierazi ditu ideiak.
Zuzentasuna	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Akats kopurua. ✓ Akatsek ez dute ulergarritasuna oztopatu. ✓ Akatsak ez dira oso oinarrizkoak izan eta ez dira behin eta berriro errepikatu. <p><i>Adibidez, ondoko hauek oinarri-oinarrizko akatsak dira:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - Trena hartu genuen bidai turistiko egitera. - Auto iaz erosi dugu. - Bi bide daukagu han joatera. - Nire umeari asko gustatzen zaie. - Haiek pentsatzen ari dute jaietan nora joango gara. - Jatetxe batean joaten bagara...